

EUSKADIRA DATOZEN TURISTA ETA BISITARIENTZAKO GIZABIDE DEKALOGOIA

- ✘ **Ondare naturala eta kulturala herri guztiena da**, goza ezazu, gorde itzazu haien balore unibertsalak eta saihestu haien biziraupena arriskuan jar dezaketen eragin negatiboak.
- ✘ **Ez sartu espezie inbaditzaileak eta ez hartu babestutako flora eta fauna, ezta espezie horietatik eratorritako produkturik ere**. Ez atera materialik interesekoak diren eraketa geologikoetatik.
- ✘ **Ekidin zarata egitea balio natural eta kultural handiko guneetan** eta ez eragin soinu-distorsiorik.
- ✘ **Ez egin surik**, horretarako egokitutako guneetan izan ezik; **ez bota zigarrokinik zorura**, itzaltzeko zailak izan daitezkeen suteak eragin baititzakete, bereziki basarteetan eta eremu menditsuetan.
- ✘ **Ez kontsumitu beharrezkoa den baino ur eta energia gehiagorik, eta kudeatu hondakinak modu arduratsuan**, hau da, ez utzi zaborrik edozein lekutan eta erabil itzazu bereizketa selektiborako edukiontziak.
- ✘ **Erabili ahalik eta gutxien autoa edo motorra**. Joan oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ahal duzun guztietan.
- ✘ **Aukeratu establezimendu turistiko arduratsuak**, hau da, birziklapenaren, energia eta ura aurreztearen, eta tokiko komunitatea zein ondare naturala eta kulturala errespetatzearen alde egiten dutenak.
- ✘ **Ahal baduzu, kontsumitu tokiko produktuak**; bertako gastronomiaz, kulturaz eta artisautzaz gozatzeaz gain, ingurua babesten eta garapen jasangarria sustatzen lagunduko duzu.
- ✘ **Errespetuz trata itzazu besteak**, haien duintasuna gordez, berdinetik berdinerara.
- ✘ **Hedatu bisitatzen duzun inguruaren edertasuna eta interesa**; izan ere, turismo arduratsuen alde egiten baduzu, denboran zehar iraungo du.

Eskerrik asko zure laguntzagatik